

noaua

Larunbat honetan
hasiko da
Kulturaldia

2019ko zerga
ordenantzak
KPIren azpitik
eguneratuko dira



Argazkia: Euskaraldia Usurbil

Atxikimenduak ugaltzen doaz

Udal eta Foru
Hauteskundeak

Lan-saioa

Juan Karlos
Izagirrerekin



Azaroak 10
larunbata
10:00-13:00

Potxoenean

ehbildu

Gai-ordena:

- 1 Legealdiko balantzea eta azken txanpa
- 2 Juan Karlos Izagirrerekin kafe-tertulia:
Zer dago jokoan hauteskunderetan?
Zeintzuk dira Gipuzkoaren erronkak?
- 3 Herri-programa osatzen hasi
- 4 Alkategaia eta hautets-zerrenda erabakitzekeo prozesuaren berri eman



Usurbilgo Udalak

Udal aurrekontuak aurkezteko batzarrak



Parte hartu eta egin zure ekarpena!

Kaxkoan

19

Azaroak

Kaxkoan. Potxoenean
19:00 astelehena

Txokoalde

20

Azaroak

Txokoalde. Erroizpe Elk.
19:00 asteartea

Santuenean

20

Azaroak

Santuenean. Auzo elkartean
19:00 asteartea

Munalurra

21

Azaroak

Munalurra. Eguzki elkartean
19:00 asteazkena

Aginaga

21

Azaroak

Aginaga. Ludotekan
19:00 asteazkena

Kalezar

22

Azaroak

Kaxkoan. Potxoenean
19:00 osteguna

Zubieta

22

Azaroak

Zubieta. Kaxkape
19:00 osteguna



Albiste iruditzen

Ikusgarria izan zen azaroaren 1eko gizon-proba

Santu Guztien Egunean, gizon-proba jokatu zen dema-plazan. Bizkaiko talde batek 20 minutuko ahalegina egin zuen. Usurbilgo harri handiarekin aritu ziren eta plaza bat, hiru zinta eta 30 zentimetroko distantzia osatu zuten denbora tarte horretan.

Harri handiarekin egin diren tiraldietan seiko taldeak aritu izan dira baina azaroaren 1eko entseguan zazpi gizonek jardun zuten dema-plazan. Zazpiak bizkaitarrak: Mikel Alzola (Bedarona), Iñigo Aurrekoetxea (Derio), Aitor De la Concepcion (Loiu), Santi Zubizarreta (Nabarniz), Gorka de la Concepcion (Erandio), Eneko Bilbao (Kortezubi), Iñigo Undabarrena (Amendata) eta Arkaitz Izpizua (Bermeo).

3.800 kiloko harri baldarra

1986ko gizon-proban, Euskal Herritik



Plaza bat, hiru zinta eta 30 zentimetroko distantzia osatu zuten 20 minutuko proban.

etorritako seina laguneko bost talde aritu ziren. Bizkaiko bi eta Araba, Iparraldea eta Gipuzkoatik bana lehiatu ziren. Orduko hartan Markinako taldea gailendu zen, ia bi plaza osatuta.

“3.800 kiloko harria mugitzeko baldarra da, alde batean bestean baino lodiagoa izanik, tiratzerakoan okertu egiten baita”, Usurbilgo ondarea ezagutzen liburuan irakurri dugunez.

Laburrean

Larunbat honetan, EHBilduren mintegia

2019ko udal eta foru hauteskundera begirako mintegia deitu du Usurbilgo EHBilduk larunbaterako, 10:00-13:00 artean Potxoenean. Gipuzkoako zerrenda buru Juan Karlos Izagirrek ere hartuko du parte.

Azaroaren 10ean batuko dira 1974an jaiotakoak

Azaroaren 10erako antolatu dute aforia Saizarren. “Animatu!”, luzatu dute gonbita. Izen emateko mezua bidali edo deitu 605 730 816 telefono zenbakira (Josune).

1952an jaiotako bazkaria

Abenduaren 2an bilduko dira bazkaritarako Antxeta jatetxean, 14:00etan. Izen emateko deitu azaroaren 24a baino lehen, 620 516 715 telefono zenbakira (Javier).

noaqua

Kultur Elkarte

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil

943 360 321 ||| elkarte@noaqua.eus ||| www.noaqua.eus

Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

Aldizkari koordinatzailea:

Imanol Ubeda.

Idazkaria: Aizpea Aizpurua.

Publizitatea: Beatriz Alda,

publizitatea@noaqua.eus

Diseinu berria: Erroitz S. L

Erredakzio kontseilua,

erredakzioa@noaqua.eus:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

Banaketa: Iñaki Irazusta, Jon

Galbete.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria,

Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbieto, Maddi Galbete,

Ana Urdangarin, Maddi Zaldúa,

Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon

Ettxabe, Alazne Begiristain, Denis

Elortza, Pello Aranburu, Xabier

Aranburu, Inma Balda, Luis Arana-

nalde, Nerea Zinkunegi, Maialen

Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta

Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu

Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

Euskal presoak



Euskal Herrira!



Aritz Gorriti

Euskaraldira bidean...

Eusko Jaurlearitzaren sailburu bat hedabideen aurrera agertu da. Mikrofonoz inguratua dago. Kezka eragiten ari den gai bat hartu du ahotan: La Navaleko lan gatazka. Euskaraz ari da. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako herritarren ordezkari gisa, hala behar du gainera. Euskara ezagutu, menderatu eta euskaraz aritzea. Baina gai honek oraindik nabarmendu beharrekoa izaten segitzen du, sailburu honen lan taldeko hainbat kideek, tartean zenbait sailburuk ez dutelako betebeharrak, berriro diot, betebeharrak betetzen.

Baina bueltatu gaitzen arestian aipaturiko sailburuarengana. Euskaraz ari da hedabideen aurrean, dagoen moduan. Baina segituan nabari daiteke, betebeharrak izateaz gain, hautu pertsonala ere badela berea. Euskaraz aritu nahi du, baina beste behin, euskaraz aritzeko eskubidea duela aldarrikatu beharrean aurkituko da hitz egiten hasi eta berehala.

Testuinguru ezin deigarriago baina era berean ezin

egokiagoan erakusten du bere borondatea, eta agerian uzten du berea duen euskaraz aritzeko eskubidea plazaratzean gertatzen dena. Denon den Euskal Telebistako erdarazko kateko kazetari baten, sailburuaren euskarazko diskurtsoa eten eta ETB 2-an zuzenean emititzen ari diren saiorako hitz egitea eskatzen dio. Erdaraz noski, eta bai, Euskal Telebistak. “Perdoname” eta “barkatu” hitzak esanez, kazetariaren jarrera ez zaiola batere gustatu argi adieraziz, sailburuak euskaraz hitz egiten segitzea erabakitzen du.

Euskal Telebistak euskararekiko duen jarrera aparte utzita, sailburuaren keinuak, berean, euskaraz segi izana da adierazgarriena. Hala behar ez lukeen arren, baina 2018. urtean txalotzeko keinua, keinuaren eredugarritasuna nabarmendu beharrean aurkitzen gara oraindik. ETB-k bere erdarazko katea hornitzeko euskarazko diskurtsoak etetea “normalizat” jotzen baita oraindik. Dagoenera moldatzeko, eskatzen zaigun horretara egokitzeko joera naturala dugu sarritan euskaldunok.

Eta hori espero dute askok, gu malguak izatea beti. Malguak izateko prestutasuna izatea. Euskaldunongatik ahalegin berbera egiten ote da?

Kritikagarria da zalantzarik gabe euskararekiko ETB-k une horretan, baita une gehiagotan ere agerturiko jarrera. Baina fokuz aldatu eta halako egoeren aurrean eman beharreko erantzunetan jartzen gaitu adibide honek. Erdaraz aritzeko eskatu, eta euskaraz hitz egiten segi. Erdaraz galdetu, euskaraz erantzun. Erdarazko lehen hitzari, euskarara!

Azken hitzon atzean ez dago erdararen ezta beste hizkuntzen aurkako inolako “gurutzadarik”. Behingoz, gu eta geure ama eta amonen hizkuntza, entzuna, errespetatua, eta aintzakotzat hartua izateko exijentzia baizik. Eta exijentzia hori, gurean, egunerokoan ahoz baino hobeto ezingo dugu beste modu batera aldarrikatu, ezta nireak, gureak ditugun hizkuntz eskubideak betearazi ere.

Lehen aipaturiko sailburuarena bezalako zenbat eta zenbat une deskriba ditzakegu gutako bakoitzak egune-

rokoan? Ohartzen ote gara bizi ditugun, baina zertan jasan beharrik ez dugun egoera horietaz? Halako egoerak kudeatzen ba ote dakigu?

Ate joka dugun Euskaraldiak, hark nigitik edo besteek gugatik egingo ez duten horri begira egon beharrean, gutako bakoitzak, nik edo guk egiten dugun, egin edo eragin nahi dugun horretan pentsarazten jarriko gaitu. Agian, aldatu beharreko ohituren eta jarreraren ispilu aurrean biluzik utziko gaitu hasieran. Agian, gure burua ikusi nahi ez dugun ispiluaren aurrean jarriko gaitu. Baina kontua ez da gure burua gogor epaitzea.

Gogotsu arituz, ditugun hizkuntza ohiturez jabetu, gure egunerokoan euskaraz bizitzeko ditugun zailtasunez ohartu, horiek gainditzeko norabidean jarri eta aldatzen hastea proposatzen da Euskaraldiarekin. Barneratuak ditugun jarrerak azaleratu beharrik ditugu lehenbizi, jabetu, aldatuko baditugu gero. Datozen 11 egunok (azaroak 23-abenduak 3) 365 egunez euskaraz bizitzeko abiapuntu izan daitezela!

Maialen Unanue | Garazi Lizaso Manterola | **Aritz Gorriti** | Imanol Ubeda | Luis Aranalde | Luken Arkarazo

Komikia



TOKIKOMeko hainbat hedabideek sustaturiko tira komikoa.

* Ika Mika atalerako idatziak gehienez 2.000 karaktere izango ditu. NOAUA!k ez du bere gain hartzen Ika Mika atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik. Ezizena ere onar daiteke, baina idatziaren egile den gizabanakoaren edo elkartearen IFK edo baliokidea egiaztatuta eta gero. Zuzenean beste pertsona bati zuzenduta dagoenean, izen-abizenekin argitaratuko da ika-mikarako idatzia. Hurrengo alea: azaroak 16. Idatzia ekartzeko azken eguna: azaroak 12.

%2,3 igoko dira taxien tarifak 2019an

Usurbilgo herri barruko 2019rako taxi tarifak onartu zituen urriaren 30eko osoko bilkuran udalbatzak aho batez. Urte berrian sartzearekin batera, %2,3 igoko dira zerbitzu hau baliatzeagatik ordaindu beharko diren tarifak.

Urtero moduan, Gipuzkoak dituen bi taxi elkarteek 2019rako taxi tarifa berrien eskaintza helarazi zien Buruntzaldeko udalei, guztiok biltzen dituen Buruntzaldeko Taxiaren Eskualdeako Batzordeak iraila amaieran egin zuen bilkuran. G. Taxi Gipuzkoako Taxien Elkargoak %2,5eko igoera aplikatzea proposatu zuen, Agitaxek %2,3koa. Batzordeak aho batez %2,3ko igoera aplikatzea adostu zuen. Batzordearen proposamena da eskualdeko udaletara heldu dena, tartean Usurbilgora.



Azaroaren 1ean hilerrira joateko ohitura dago. Udalak autobus zerbitzu berezia antolatatu zuen propio. Eguerdira arte aritu zen, joan-etorrian.

TARIFA BERRIAK

“Urtero moduan, Gipuzkoak dituen bi taxi elkarteek 2019rako tarifa berrien eskaintza helarazi zien Buruntzaldeko udalei”

2019ko herri barruko tarifak:
Lan egunetan, 7:00-22:00 ar-

tean:

Gutxieneko tarifa: 5,3216.
Egindako km: 1,1313.
Itxaronaldia, orduko: 21,7104.
Egunero 22:00-7:00 artean; larunbat, igande eta jai egunetan 7:00-22:00 artean, eta abenduaren 24an eta 31n:
Gutxieneko tarifa: 6,3430.
Egindako km: 1,8123.
Itxaronaldia, orduko: 34,1198.

Azaroaren 14an, “Usurbil 0.0” jarraipen-batzordearen bilera Potxoenean

Azaroaren 14rako deitu du Usurbilgo Udalak “Usurbil 0.0” plangintzaren jarraipena egiteko seiheroko batzarra, 18:00etan Potxoenean. Batzar irekia izango da, edonork parte hartu ahalko du. Egitasmo honen baitan azken hilabeteotan emandako urratsen eta 2019rako aurreikusen diren egitasmoen berri emango da, bertaratzen diren herritarren ekarpenak biltzearekin batera. Hitzordu honen harira, Usurbilgo hondakinen kudeaketari lotutako 2018ko lehen seiheroko datuak plazaratu ditu Udalak.



Arratsaldeko 18:00etan hasiko da bilera.

Bataz beste, hondakinen %85,11 bildu da gaika urtariletik ekainera Usurbilen. Maiatzean %87,12rainokoa izatera heldu zen bildutako kopurua.



Errigoraren kaxak salgai

Nafarroa hegoaldeko tokiko produkzioa eta euskalgintza sustatzeko abian den udazkeneko kanpainaren baitan, produktu kutzak eskuratzeko azaroaren 14ra arteko epea duzue, NOAUA!ra etorrita:

Kutxa beltza:

Prezioa: 50 euro.

Produktuak: oliba-olio birjina estra, ozpin ekologikoa, mahats-zuku ekologikoa, orburu bihotzak, piper txorizero mamia, potxak, ardo beltz ekologikoa, zainzuri zuriak, arbendolak, borra-ja ekologikoa, pikillo piper osoak, melokotoia almibaretan, tomate frijitua.

Kutxa zuria:

Prezioa: 50 euro.

Produktuak: pikillo saltsa, pasta ekologikoa, teilak, pikillo piper osoak, ardo beltz ekologikoa, zainzuri zuriak, orburu bihotzak, arroza, zainzuri-krema, piperrada, ozpin ekologikoa, ardo eta kanela pastak, txokolatzeko cookieak.

Euskotreneko langileen lan uztea

Lan uzteak iragarri dituzte Euskotreneko langileek ostiralerako (azaroak 9), 11:00-13:00 artean eta 18:00-20:00 artean. Maiatzean zuzendaritzarekin sinaturiko lan-hitzarmena indarrean jartzea exijituko dute. Lan uzteok garraio zerbitzuetan eragingo dute.

Informazio gehiago:

euskotren.eus / 944 333 333.

Kulturaldia abiatzeko, “Galerak” diskoaren aurrerapen kontzertua

Mendizaleenarekin eta aurtan, Euskaraldia-rekin batera, azaroa NOAUA!ren Kulturaldiarena dugu. Azken urteon ildo bertik, eskaintza oparoa prestatu dizuegu asteotarako. Garaiz eskuratu sarrerak eta gozatu hitzorduok.

“Galerak” diskoaren aurrerapen kontzertuarekin abiatuko dugu NOAUA!ren Kulturaldia aurtengoan. Emanaldia, azaroaren 10ean, 22:00etan Sutegiko auditorioan.

Alex Tello herritarrak sustatu duen proiektua dugu honakoa. “Poesia, antzerkia, dantza eta ilustrazioak biltzen dituen zuzeneko musika emankizuna, pianoa, akordeoia, biolina, txeloa, txirula, txistua eta perkusioarekin, Ignacio Arakistain eta Lucia Arzallusen zuzendaritzapean. Sutegiko agertokian ondorengoek abestuko dute: Amaia Intxaustik, Jon Gurrutxagak, Onintza Manterolak, Paula Brotonsek, Xabi San Sebastianek...”. Ion Martinez aktoreak eta Miren Lizeaga dantzariak parte hartuko dute.

Hitzordura bestalde, Natali talde usurbildarra gonbidatu



Natali Izagirre eta Ixak Arruti larunbateko emanaldian izango dira, beste artista askorekin batera.

AZAROAK 10, LARUNBATA

“Alex Tello herritarrak sustatu duen proiektua dugu Galerak. Poesia, antzerkia, dantza eta ilustrazioak biltzen dituen zuzeneko emankizuna”

dute. Natali Izagirre eta Ixak Arruti ere beraz larunbateko emanaldian izango dira.

Abiapuntua

“Udako olatuaren eran etorri zinen. Oroitzen dut nola elkar ezagutu genuen taberna hartan, Zarautzen. Eta, udazkenaren atarian, igande bare batean, zure poema baten kantua erakutsi zenidan. Hitz haiek idazten segitzera eramanez ninduten eta zure itsasoan murgildu nintzen. Zure bizipenek melodia eta poesia eskatzen zuten. Zuregana iristeko era.

Sortu zenuen doinuak harrapatu ninduen. Zure ahotsak zirra-rra eragin zidan”.

Galerak diskoko aurrerapen kontzertua

- Azaroak 10, larunbata, 22:00.
- Sutegiko auditorioa.
- Sarrera: 8 euro (Aldez aurretik Bordatxo, Artzabal, Lizardi eta NoaUA!ko egoitzan). NOAUA!ko bazkideek 6 euro (NOAUA!ko egoitzan aldeztu aurretik).

Herriko kultur altxorak sakonago ezagutzeko ibilaldia

“Euskal tradizioa eta modernitatea ederki uztartu dituen herria da Usurbil, baita euskal sorkuntzarekin konprometitutako herria ere. Inon baino hobeto islatzen da 60ko hamarkadan Euskal Herrian gertatu zen kultura-etzanda, eta baita eztanda horren ondorena ere”.

Tarteka Usurbilen barrena egiten den euskal kulturari lotutako bisita gidatuaren edizio berria, NOAUA!ren Kultu-

raldiaren baitan ospatuko da igande honetan bertan.

Adi, joan etorrietarako furgoneta zerbitzua antolatu da. Goiz pasa borobil honetarako izena aurrez eman beharko da.

Azaroak 11, igandea

- 10:00 HARRIA HITZ bisita gidatua herrigunean, frontotik abiatuta.
- 11:15 Zumeta Arte Estudiora bisita.

■ 12:35 TXTXTX Txokoaldeko Txalaparta Txokora bisita + tailerra/ikastaroa (sagarra-egurra-txalaparta).

■ 13:35 Mokadutxoa (txorizo egosia, gazta eta sagardoa).

■ 14:00 Amaiera.

■ Oharra: Zumeta Arte Estudiora eta Txokoaldeko Txalaparta Txokora joateko furgoneta zerbitzua.

■ Informazioa eta erreserbak: 688 818 017 info@kultour.pro



Igande honetan, Harria hitz bisita gidatua. Aurrez eman behar da izena.

elkartea@noaua.eus
Antolatzaileak: NoaUA! Kultur Elkartea, Sagarren Bihotza, Sagardoaren Kultura eta TX-TXTX Txalaparta Txokoa.

Fermin Muguruzak aurkeztuko digu “Black is beltza”

1965eko urria. New Yorkeko Bosgarren Hiribidean desfilatzeko gonbita jaso du Iruñeko San Ferminetako erraldioen konpartsak. Ezingo dute, ordea, denek desfilatu: arrazagatiko bereizkeria dela kausa, agintari ipar-amerikarrek debekatu egin dute erraldoi beltzen parte-hartzea. Benetako gertaera horretatik abiatzen da Manex Unanue-ren, erraldoi beltz horietako bat garraiatzeko ardua zuen fikziozko pertsonaiaren historia, “Black is beltza” Fermin Muguruzak zuzenduriko animaziozko filma alegia.

“Bere kideek agintarien erabakari men egin izana deitoratuz, etxera ez itzultzea erabakiko du Manexek. Gazte honen begietatik izango dugu 1960ko hamarkadaren erdialdean gizartea errotik astindu zuten gertaeren berri”.

Igande honetan (azaroak 11) proiektatuko dugu filma 19:00etan Sutegin. Proiektziozko zuzendaria bera gonbidatu



“Black is beltza” Fermin Muguruzak zuzenduriko animaziozko filma Sutegin ikus ahal izango dugu igande honetan.

AZAROAK 11, IGANDEA

Arratsaldeko 19:00etan hasiko da proiektzioa Sutegin. Sarrerak aurrez erosi daitezke

dugu; Fermin Muguruzak azalduko dizkigu ikus-entzunezko lan honen nondik norakoak.

“Black is beltza”

■ Eguna: azaroak 11, igandea.

■ Ordua: 19:00.

■ Tokia: Sutegiko auditorioa.

■ Oharra: Fermin Muguruzak Sutegin izango da.

■ Sarrera: 6 euro (Aldez aurretik Bordatxon, Artzabalen, Lizardin eta NOAUA!ko egoitzan). NOAUA!ko bazkideek 4 eurotan erosi ahal izango dute NOAUA!ko egoitzan alde aurretik.

Informazio gehiago: blackisbeltza.eus

Kulturaldirako beherapenak eta sarreren zozketak NOAUA!-ko bazkideontzat

Azaroaren 10etik 18ra ospatuko dugun Kulturaldiko ekitaldietarako sarrerak aurrez eskuratu ahaliko dituzue Bordatxon, Artzabalen, Lizardin eta Noaua! K.E.-ko egoitzan (bertso bazkarioko Patrín). NOAUA!ko bazkideok ordea merkeago, NOAUA! K.E.-ren egoitzan. Hain zuzen, NOAUA! kide izateak duen abantailetakoa bat horixe dugu, beherapenak kultur elkarte honek antolatzen dituen ekitaldien sarrerak eskuratzerakoan.

Horrekin batera gainera, NOAUA!-ko bazkideon artean Kulturaldirako sarrera mordoxka bat zozketatuko ditugu azaroaren 9an. Adi beraz eta zorte on!

Beherapenak izan edota zozketa hauetan parte hartu nahi baduzu, egin zaitez NOAUA! kide. Etorri kultur elkarteko egoitzara eta segituan tramitatuko dizugu bazkidegiz.

“Gure Kasa”, ETB1eko pantailatik Kulturaldira

Gauero, afalorduan etxebizitza askotako sukalde eta egongelatan sartzen zaizkigu pantaila bidez, haien umore, elkarrizketa eta erreportajeekin. ETB-ko “Gure Kasa” saioaz ari gara.

Saioko hiru lagun gonbidatu ditugu azaroaren 14an Sutegira, haiekin solasean aritzeko; Aitziber Garmendia eta Julen eta Antton Telleria anaiak. Hirurak hobekiago ezagutu eta haien ibilbide profesionalaren

berri jasotzeko aukera izango dugu, NOAUA!ren Kulturaldiraren baitan. Euskaraldia begi bistan dugun honetan, euskarak haien bizitzan eta lanean duen garrantzia ere azalduko digute.

Azaroak 14, asteazkena

■ 19:30 Solasaldia Antton eta Julen Telleriarekin eta Aitziber Garmendiarekin Sutegiko auditorioan.

■ Sarrera doan.



Aitziber Garmendia eta Julen eta Antton Telleria anaiak azaroaren 14an izango dira Sutegin.

Euskaraldiak eta Kulturaldiak bat egingo dute azaroaren 16ko antzerkian

Euskara eta euskal kulturaren hilabetea dugu honakoa Usurbilen, abiatzear ditugun NOAUA!ren Kulturaldiari eta Euskaraldiari esker. Biak gurutzatuko dira asteotan eta bi ekimenak elkar elikatuko ditugu. Kulturaldia- ren baitan Sutegin antolatu ditugun ekitaldietan azaroaren 23tik abenduaren 3ra Ahobizi nahiz Belarriprest gisa parte hartu nahi duzuen guztiontzako izen emate mahaia jarriko dugu kultur etxean bertan, ekitaldiak hasi aurreko orduerdian.

Euskaraldiarekin bat egin dutenen artean da NOAUA! K.E. ere. Baita azaroaren 16an Sutegiko oholtza gainera igoko diren lau lagunak; Nahia, Xabat, Eli eta Patxi. “Euskaraldirako 4 aitzakia” antzezlana eskainiko digute. Euskaraldiaz ariko zaizkigu Sutegin. Euskaraldia zertarako? Usurbilen behar al da? 4 hauen esku utzi behar ote dugu Euskaraldiaren



“Euskaraldia zertarako? Usurbilen behar al da?”. Euskaraldiaz ariko zaizkigu Sutegin.

AZAROAK 16, OSTIRALA

**“Nahia, Xabat,
Eli eta Patxi
“Euskaraldirako 4
aitzakia” antzezlana
eskainiko digute”**

ardura gure herrian? Ikustekoa izango da.

Azaroak 16, ostirala

■ 19:30 “Euskaraldirako 4 aitzakia” antzezlana Sutegiko auditorioan.

■ Antzezleak: Nahia, Xabat,

Eli eta Patxi.

■ Sarrera: 6 euro (Aldez aurretik Bordatxon, Artzabalen, Lizardin eta Noaua!ko egoitzan). NOAUA!ko bazkideek 4 euroan erosi ahal izango dute NOAUA!ko egoitzan aldez aurretik.

Azaroaren 17an, kantu-bertso-bazkari-jira Agin Laburu eta Aitor Sarriegi bertsolariekin

Berriz heldu diogu aurten-goan, Kantu Taldea, Bota Punttuba eta NOAUA! K.E.-ren arteko elkarlanari. Elkarlan horren emaitza da, azaroaren 17rako guztion artean berreskuratu dugun kantu-bertso-bazkari-jira!

Kantua, bertsoa, eta Patri jatetxeko otordua, eguerdi pasa borobil baterako osagai guztiak ditu astebete barruko hitzorduak. Kaxkoa girotzen hasiko dugu eguna. Mikel Laboa plazatik Kantu Taldearekin.



Bazkaria Patrin izango da eta sarrerak bertan dituzue salgai, 20 eurotan.

Herritar oro dago gonbidatua, oraingoan, Agin Laburu eta Aitor Sarriegi bertsolariek bidelagun izango dituen hitzordura. Bazkalaurretik Kaxkoan

barrena egingo duen kalejira bertso eta euskal kantuez blaituko dugu.

Eta segidan, bertso-bazkaria Patri jatetxean. Bazkaritarako

txartelak Patrin bertan dituzue salgai.

Azaroak 17, larunbata

■ 12:00 Kantu-Bertso-Jira Agin Laburu eta Aitor Sarriegi bertsolariekin eta Kantu Taldearekin, Mikel Laboa plazatik abiatuta.

■ Ondoren, bertso bazkaria Patri jatetxean. Bazkaritarako txartelak aurretik salgai 20 eurotan Patrin soilik.

■ Antolatzaileak: Kantu Taldea, Bota Punttuba eta Noaua! Kultur Elkartea.

“Oreina”, Sutegira bidean

Duela urtebete, garai honetan zine ekoizpen gune handian bilakatu ziren Aginaga eta Usurbil inguruak. Inguruotan grabatu zuten “Oreina” filma. Gogoan izan, Donostiako Zinemaldian estreinatu eta saritu zuten, iraila amaieran Euskal Herriko zinema aretoetara jauzi egin zuen. Aginagako Jai Batzordeak, San Praixkuetara gonbidatu zituen Koldo Almandoz filmeko zuzendaria eta Aginagako Eliza Zaharrean ikus ahal izan zuten estreinakoz “Oreina”. Esker ona adierazi zieten, Eliza Zaharrean bildutako aginagarrei, filma grabatzeko emandako erraztasun guztien-
gatik.

Errio inguruetan grabaturiko irudiak mundura zabaltzeko asmoa agertu zuten. Azken asteotan, Madril, Katalunia edota Asturias aldera zabaldu duten “Oreina” Usurbilgo Sutegi aretora datorkigu azaroaren 17an NOAUA! K.E.-ren eskutik! Eta ez bakarrik! Ramon Agirre an-



Aginaga eta Usurbil aldean grabatu ziren “Oreina” pelikulako eszena gehienak.

AZAROAK 17, LARUNBATA

“Ramon Agirre aktorea eta Marian Fernandez ekoizlea etorriko dira filmaren nondik norakoak azaltzera”

tezlea eta Marian Fernandez Pascal ekoizle exekutiboa etorriko zaizkigu pelikularen non-

dik norakoak azaltzera.

“Oreina” Sutegin

- Eguna: azaroak 17, larunbata.
- Ordua: 19:00.
- Tokia: Sutegiko auditorioa.
- Zuzendaritza eta gidioia: Koldo Almandoz.
- Aktoreak: Laulad Ahmed Saleh, Patxi Bisquert, Ramon Agirre, Iraia Elías eta Erika

Olaizola.

- Sinopsia: “Hiria, industria-giroa eta natura elkartzten dituen hiri-periferia bateko hainbat pertsonaia erakutsiko dizkigu. Mareek, paduraren uhertzean, maitasuna eta desamodioa, kideasuna eta mendekuaren denbora markatzen dute”.
- Iraupena: 85 minutu.

eMeren kontzertuak borobilduko du Kulturaldia

Haritz Harreguyk, Nora Izagirrek eta Ruben Caballero osaturiko eMe taldearen kontzertuarekin borobilduko dugu aurtengo NOAUA!ren Kulturaldia azaroaren 18an. Haien “Beleak elurretan” lehen diskoko abestiak entzuteko parada izango dugu.

Azaroak 18, igandea

- Eguna: azaroak 18, igandea.
- Ordua: 19:00.
- Tokia: Sutegiko auditorioa.
- Sarrera: 10 euro (Aldez aurretik Bordatxon, Artzabalen, Lizardin eta Noaua!ko egoitzan). NOAUA!ko bazkideek 8 eurotan erosi ahal izango dute NOAUA!ko egoitzan aldez aurretik.



Ruben Caballero, Nora Izagirre eta Haritz Harreguy, eMeko partaideak. Argazkia: Ion Markel Saez de Urabain.

600 herritar baino gehiago, Euskaraldian parte hartzeko prest

Bidelagunak batzen eta batzen ari zaizkio Euskaraldiari Usurbilen. Ekimena herri mailan bideratzen ari den talde sustatzaileak berri eman duenez, jada 600 herritarrek baino gehiagok izena eman dute, azaroaren 23tik abenduaren 3ra Belarriprest nahiz Ahobizi gisa jarduteko.

Norbanakoek soilik ez, denetarik 30 herri eragiletik gora dira dagoeneko atxikimendua adierazia diotenak Euskaraldiari. Bat egitea soilik ez, inguruan 11 egunez Ahobizi nahiz Belarriprest gisa arituko diren herritarrak aktibatze konpromisoa ere hartu dute. Aurrez eginiko lanketaren emaitza izan da. “Usurbilen lanketa berezia egin nahi izan dugu herriko eragileekin, elkarteekin, taldeekin, enpresekin... Ekimena banan bana aurkezten jarri ditugu gure indarrak, Euskaraldian parte hartuko duten herritarrengana modu zuzenagoan iritsi gaitzen”.

Zenbakietatik haratago joan nahi du ordea Euskaraldia Usurbilen sustatzeko hilabe-



Norbanakoek soilik ez, 30 herri eragiletik gora dira dagoeneko atxikimendua adierazia diotenak Euskaraldiari.

EUSKARALDIA USURBIL

“Usurbilen lanketa berezia egin nahi izan dugu herriko eragileekin, elkarteekin, taldeekin, enpresekin... Ekimena banan bana aurkezten jarri ditugu gure indarrak”

teak gogotik lanean daramatzan herritarren batzordeak. Helburu nagusia ez da zenbaterik parte hartzen duten nabarmentzea, baizik eta “parte hartzen duten horiek ematen dituzten urratsak hizkuntza-ohiturak aldatzea. Antolaketa ari garenon ikuspegitik ariketa honek inertiak apurtzea eta ohiturak aldatzea du helburu eta, horregatik, datuek

baino, sortuko diren aldaketek dute guretzat garrantzia”. Ariketa honen izaera kualitatiboa nabarmentzen dute.

Honenbestez, jada bildu duten izen emate kopurua aipatuz diotenez, “600 herritarrek baino gehiagok agertu dute Euskaraldian bere inguruan eragin, hizkuntza ohiturak aztertu eta hauetan eragiteko asmoa”.

“Txapak banatzearekin batera partaideentzako aholkuak eskainiko ditugu”

Helburua, ariketa hau egiteko konpromisoa hartzen dugun Ahobizi nahiz Belarriprest guztiok ariketa bera ahalik eta ondoen burutzea da. Horregatik izen ematearekin batera, “rol horiekin hartzen dugun konpromisoa zein den argi izatea” garrantzitsutzat jotzen du

Euskaraldia Usurbilen sustatzen ari den herritar taldeak.

Testuinguru honetan antolatu dituzte Belarriprest eta Ahobiziei zuzenduriko azken asteotako tailerrak Potxoenean. “Lehen herritarrak prestatu ditugu”, nabarmendu dute ohar bidez. Asteotan, “aholkuak ematen jarraituko dugu sare

sozialen bidez eta Usurbilgo sustatzaileen bidez. Gainera, Ahobizi eta Belarriprest tailerrek ere antolatuko dira”.

Horrekin batera, azaroaren 16an iragarri diren ekimenen artean, azaroaren 23tik abenduaren 3ra zein roletan arituko garen jendaurrean ezagutzea ematen lagunduko diguten

txapak eskuratu ahalko ditugu. “Txapak banatzearekin batera partaideentzako aholkuak eskainiko ditugu eta gure sare sozial bidez ere poliki-poliki hainbat argibide ematen saiatuko gara. Helburua ariketa ahalik eta ondoen egiteko herritarrak eroso sentiaraztea da”.

Edonor izan daiteke Belarriprest

Aipatu moduan, jada 600 usurbildarrek baino gehiagok Euskaraldirako izena emana dute. Haietatik gehienak Ahobizi gisa parte hartzeko borondatea agertu dute.

“Nolanahi ere, Ahobiziek beste garrantzia dute Belarriprestek ere eta herritarrek izen ematera animatu nahi ditugu rol bata zein bestea hautatzen dutela ere. Hurrengo asteetan, orain arte izena eman duten horiek bere inguruan eragin eta partaide gehiago bilatzera bultzatu nahi ditugu. Izan ere, hizkuntza ohiturak aldatzeko garrantzitsua da aurrez ariketaren berri eman, gure buruak eta ingurua prestatzea eta, beraz, inguruko senide, lagun, lankide eta ezagunek ere ariketan parte hartu dezaten animatzea”.

Belarripresten egitekoaz zerbait zalantza sortu dira azken aldian. Ez ahaztu, Ahobiziek euskara ulertzen duten guztiei euskaraz aritzeko konpromi-



Jendea hasi da Ahobizi nahiz Belarriprest gisa izena ematen. “Belarriprest gisa parte har dezake, euskaraz hitz egiten moldatu ez baina ulertzen duenak, edota baita euskara ahoz ere primeran menderatzen duen orok”.

EUSKARALDIA

“Euskara ulertu eta 16 urte izatea aski da, Belarriprest nahiz Ahobizi gisa parte hartzeko”

soa hartuko dute 11 egunez, baita hark erdaraz erantzun arren ere. Ezezagunei ere, gutxienik lehen hitza euskaraz egingo diete. Euskaraldian Belarriprest gisa parte hartzea erabakitzen duenak, berari

euskaraz zuzentzea eskatuko du. Belarriprest gisa parte har dezake, euskaraz hitz egiten moldatu ez baina ulertzen duenak, edota baita euskara ahoz ere primeran menderatzen duen orok. Belarriprestek euskara entzun nahi du bere egunerokoa.

Edozein dela ere hautatzen duzuen papera, euskara ulertu eta 16 urte izatea aski da, Belarriprest nahiz Ahobizi gisa Euskaraldian izena eman eta parte hartzeko.

Eragina neurtzeko ikerketa

Euskaraldian ehunka herritarrek egingo duten ariketaren eragina neurtzeko ikerketa bideratuko du Soziolinguistika Klusterrak, Usurbilgo Udalaren eskariz. “Usurbilen Euskaraldirako izen emana duen inpaktuari buruzko datuak izango ditugu eskuarte”, berri eman dute Euskaraldia sustatzen ari den taldeak.

Horretarako, Euskaraldirako izen eman duten kideen datu batzuk jasoko dira. “Datuak fidagarri eta egokiak izan daitezten ahal beste beste pertsonen bete beharko dituzte galde-tegiak”. 10 minutuan osatzeko moduko hiru galde-tegi erraz izango dira; aurrenekoa, Euskaraldia hasi baino egun batzuk lehenago bidaliko dute, bigarre-

na ekimena bukatu eta gutxira, eta hirugarrena 2019ko martxoan jasoko dute herritarrek.

Lanketa honen garrantzia nabarmendu dute, “ikerketa horrek islatuko baitu ekimenaren ondorioak nolakoak eta zenbatekoak izan diren. Lagunduko digu ezagutzen hizkuntza ohiturak nola eta zenbat aldatu diren euskararen alde, joera horiek denboran mantendu diren ala ez, eta, finean, ekimenaren bueltan egin den esfortzu guztiaren emaitzak neurtzeko modua izango da”. Horregatik guztiatik Euskaraldirako izena eman duten lagunek, email bidez jasoko dituzten galde-tegiak betetzea eskatzen zaie Euskaraldia Usurbilen sustatzen ari den taldeak.

Euskaraldia, datozen deialdiak

Azaroak 12, astelehena

■ 18:00 Herri eragileetako ordezkariekin azken batzarra Potxoenean.

Azaroak 16, ostirala

Txapa banaketa

■ Goizean zehar, txapak eskuratzeko aukera NOAUA!n eta Potxoenean.

■ 17:00-19:00 Gaztain jatea eta txapak eskuratzeko aukera frontoi inguruan.

■ 19:30 “Euskaraldirako 4 aitzakia: Nahia, Xabat, Eli eta Patxi” NOAUA!ren Kulturaldiaren baitan iragarria dagoen antzezlanaren Sute-giko auditorioan.

Izen ematea zabalik jarraitzen du

■ Non: NOAUA! K.E.-ren egoitzan, Potxoenean ditugun eskuorrietan. Bestela emailaz edo Euskaraldirako martxan jarritako web orrialdean.

Mahaiak NOAUA!ren

Kulturaldian:

■ Azaroak 10, larunbata: 21:30-22:00.

■ Azaroak 11, igandea: 18:30-19:00.

■ Azaroak 14, asteazkena: 19:00-19:30.

■ Azaroak 17, larunbata: 18:30-19:00.

■ Azaroak 18, igandea: 18:30-19:00.

■ Tokia: Sute-giko auditorio sarreran.

Informazio gehiago:

usurbil@euskaraldia.eus

usurbil.euskaraldia.eus

Facebook: Euskaraldia Usurbil

Twitter: @EuskaraldiaUsur

Youtube: Euskaraldia Usurbil

Antolatzailea:

Euskaraldia Usurbil.

Azaroak 20, asteartea

■ 18:00 Ahobizi eta Belarriprest guztientzat tailerra Potxoenean.

Azaroak 23, ostirala

Euskaraldiaren hasiera

■ 8:00 Euskaraldiari hasiera emateko 11 suziri.

■ Egunean zehar, musika plaza inguruan.

■ 17:00 Bihurri Ludotekan zinea euskaraz eta palomitak 6 urte arteko haurrentzat. Sarre-ra: doan.

■ 17:30 Taloak frontoian. Ondoren, Orbeldi dantza taldearen emanaldia eta Errebal taldearen dantza musikatua frontoian.

■ 19:00 Andatza M.K.T.-ren Mendi Astearen baitan, “Aizkora hotsak goi mendietan” dokumentala Sute-giko auditorioan.

Argazki Lehiaketaren edizio berri bat antolatu dute Santuenean

Neguko irudiak, hala izena du Santuenea Kultur Elkarteak antolaturiko argazki lehiaketak. Hortxe gaia, eta gai horri loturiko argazkiak ateratzean dago lehiaketa honen gakoa. Ekimena haur eta gaztetxoei, 0-3, 4-7 eta 7-16 urte arteko zuzendua dago. Argazkiak azaroaren 15etik 30era aurkeztu beharko dira Santuenea Kultur Elkarte-ko egoitzan. Toki berean jaso ahal izango da xehetasun gehiagoren berri.

Maria Jesus Etxeberriaren argazki erakusketa

Usurbilgo txokoak eguzkipean, egunsentiak... Argazki bilduma ederra osatu du Maria Jesus Etxeberria usurbildarrak. Haietako hainbat irudi Sutegin jarri ditu ikusgai.



'Neguko irudiak', aurtengo lehiaketarako gaia. Argazkiak Santuenea Kultur Elkarte-ko egoitzan aurkeztu behar dira.

Azaroaren 5etik 16ra

"Eguzkia eta argiaren indarra" bilduma ikusgai izango du kultur etxe-ko erakusketa aretoan, azaroaren 5etik 16ra, ordutegi

honetan:

■ Astelehene- ostiralera: 16:30-19:00.

■ Larunbat eta igandeetan: 12:00-13:30.

Maite Franko ipuin kontalaria bisitan etorriko da azaroaren 14an

HH5-eko haurrei zuzenduriko ipuin kontaketa saioa Maite Frankoren eskutik, azaroaren 14an, 18:00etan hasita, Sutegin udal liburutegian. Gogoan izan bestalde, Ana Merino herritarrak gidatutako 9. gaztelaniazko literatura topaketa antolatu dutela gune berean, azaroaren 28rako. Edgar Allan Poe-ren "Cuentos" ipuin liburuko "Los crímenes de la calle Morgue, El corazón delator, El tonel de amontillado eta Berenice" ipuinen inguruko solasaldia. Parte hartu nahi dutenentzat, liburuak Sutegin egongo dira eskuragarri.



HH5 mailako gazteentzako saioa eskainiko du Sutegin.

Berdintasun

ipuinak Aginagan

Antxomolantxa Elkarteak antolatuta, azaroaren 17an, 17:30etan hasita Aginagako ludotekan. 4-10 urte arteko haurrei zuzenduriko hitzorduan "denak errespetatuz bizi ahal izateko bidaia-tuko dugu ipuin zoragarrien munduan, bakean eta berdintasunean bizi ahal izateko". Ekitaldirako sarrera doakoa izango da.

Tailerra, guraso eta seme-alaben arteko komunikazioaz

Azaroaren 17an, 10:00-12:00 artean Potxoenean, Usurbilgo Udalak antolatuta. Gaztelekuko hezitzaileek bideratuko duten saioa, 12-18 urte arteko nerabeen gurasoei zuzendua dago. Izena doan eman ahalko da, azaroaren 9a baino lehen Gaztelekuan edo gaztelekua@usurbil.eus helbidera idatzita.

Informazio gehiago:

688 713 838.

Gripearen aurkako txertoa jartzeko garaia da

Abenduaren 5era arte iraungo du kanpainak. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoarako 400.000 dosi eskuratu dira eta 1,2 milioi euroko inbertsioa egin da, 30 urte bete dituen kanpaina honetarako. Txertoa, 65 urtetik gorako pertsonen, gaixotasun kronikoren bat dutenei, haurdun direnei eta osasun-langileei hartzea aholkatzen zaie bereziki.

Aurretik deitu behar da eguna eta ordua zehazteko

Txertatu aurretik, hitzordua eskatu anbulatorioan bertan edo osasun etxera deituta. Hemen telefono zenbakia: 943361543.



ZUBIMUXU ATERPETXEA

Goizuetako Zubimuxu Aterpetxearen zerbitzua kudeatzeko zerbitzu emakida kontratua

Goizuetako Udaltzatzak, 2018ko urriaren 17an egindako Osoko Bilkuran, ondoren zehazten den kontratazioa egitea erabaki zuen:

Xedea: Goizuetako Zubimuxu Aterpetxearen zerbitzuaren emakida

Prozedura: Irekia

Burutzeko epea: 2 urte

Luzapena: Kontratuaren iraupena 2 urtekoa izanen da, eta urtero luzatu ahalko da, 3 urtez, gehienez ere 5 urte egin arte

Balio Estimaturia, BEZik gabe, eta luzapenak barne: 7.438 € (5 urterako)

Balio Estimaturia, BEZik gabe, urtekoa: 1.487,60 €

Proposamenak aurkezteko epea:
2018ko azaroaren 1etik azaroaren 26ra

Administrazio-baldintza partikularren eta teknikoen plegua eta gainerako agiriakinteresatuen esku daude Goizuetako Udalaren idazkaritzan:

Herriko Plaza 4, 1., 31754 Goizueta (09:00etatik 12:30etara)
948 51 40 06 telefono zenbakian edo www.goizueta.eus



BAZKIDEEN TXOKOA



NOAUAIKO bazkide guztien artean zozketatuko ditugu sari zoragarri hauek, azaroaren 9an



AZAROAREN 11AN IGANDEA
BLACK IS BELTZA PELIKULA
IKUSTEKO 2 SARRERA BIKOITZ



AZAROAREN 17AN, LARUMBATA
OREINA PELIKULA
IKUSTEKO 2 SARRERA BIKOITZ



AZAROAREN 16AN, OSTIRALA
"GUSKARALDIRAKO 4 AITZAKIA:
NAHIA, XABAT, ELI ETA PATXI"
ANTZERKIA IKUSTEKO
2 SARRERA BIKOITZ



AZAROAREN 18AN, IGANDEA
EME TALDEAREN KONZERTUA
IKUSTEKO 2 SARRERA BIKOITZ

noaua! euskararen aterpe

Orain bazkide egiten bazara, OPARI eder bat jasoko duzu eta zozketa hauetan parte hartzeko aukera izango duzu
(40€ urtean souk) 943 360 321 / ekartea@noaua.eus

Hasi etxetik eta kalera, aho nahiz belarrietan euskara

Dakitenak pixkanaka gero eta gehiago badira ere, erabiltzen dutenak hainbeste ez direlako sortu dira Euskara ari du. Baietz Hernanik! edo Euskaraldia bezalako egitasmoak; askok familian hartu dute erronka, euskaraz aritzea ohitura bihurtu dadin.

Eustaten datuen arabera, dagoeneko 2006an ikusten zen familietan euskararen erabilerak ez zuela egiten gora, euskara zekitenek adina. EAEko datuak kontuan hartuta, etxean euskara edo nagusiki euskara erabiltzen dutenak %13-14aren bueltan dabilta, eta datua ez da apenas aldatu azken 25 urteotan. Herrialdeka badira desberdintasunak, noski. Gipuzkoan, esaterako, %25-26 bueltan dabilta, baina hemen ere joera ez da goranzkoa eta kopuruari ozta-ozta eutsi besterik ez zaio egiten.

Kaleko erabilerara salto egin badugu, joerak ez dira bestelakoak. Soziolinguistika Klusterrak 2016an egindako azken neurketan emandako datuen arabera, Euskal Herrian %11-12 dira kalean euskaraz ari direnak (10 urtetan ez da aldatu); Gipuzkoan, %31, eta gora ez egiteaz gain, beheranzko joera txiki bat ere sumatu da.

Ikerketek erakutsi dute etxeak eragin handia duela hizkuntza bat ala beste erabiltzeko joera finkatzean; euskara erabiltzen duenak erabiliko du etxetik kanpo ere. Beraz, familia transmisioaz ari garelarik, seme-alabei hizkuntzaren ezagutza transmititzeaz gain, etxeko



Euskaraldia egitasmoa martxan da. Dagoeneko eman daiteke izena usurbil.euskaraldia.eus web orrialdean.

“Ikerketek erakutsi dute etxeak eragin handia duela hizkuntza bat ala beste erabiltzeko joera finkatzean”

hizkuntza euskara izatea oso garrantzitsua da. Horretaz jabetuta, Buruntzaldeko udalerriek sustatuta, adibidez, 2008an egin zen ikerketa xume bat, aztertze-ko bikotekideen hizkuntza ohi-turak aldagarriak ote diren eta hala bada, horretarako gakoak zein diren. 16 bikote aztertu ziren, eta ondorioetako batzuk dira: posible da, erabaki eta zirtzart egin behar da, eta bietako batek sendo eutsi behar dio.

Orduko hainbat ondorio nabarmendu dira dagoeneko, Hernanin Euskara Ari Du elkarteak martxan jarritako Baietz Hernanik! erronkan parte hartu dutenengan, eta litekeena da Euskaraldian parte hartuko dutenek ere horrelakoak bizitzea.

Lorpenak gehiago, zailtasunak baino

Hain zuzen, hizkuntza ohitu-

rak aldatu eta euskaraz gehiago egiteko erronkak hartzeko sortu da Baietz Hernanik! egitasmoa 2018ko urte osorako, eta azaroaren 23tik abenduaren 3ra, berriz, Euskaraldia egitasmoa jarriko da martxan Buruntzaldeko beste herrietan eta Euskal Herri osoan. Dagoeneko eman daiteke izena: www.euskaraldia.eus.

Baietz Hernanik! egitasmoari dagokionez, irailaren amaierara arte 802 erronkalarik egin dute bat. Parte-hartzaileen %52 30-44 urte artekoak dira, eta orokorrean, emakumeak dira gehiago: %62. Erronka motari dagokionez, %30 eremu guztietan ari dira euskaraz; %15, lankideekin; %10 bikotekidearekin; %9 koadrilan; eta %8 familian.

Azken hauen esperientziaren berri ezagututa, zailtasunak baino gehiago, lorpenak azpimarratzen dituzte; “uste baino errazagoa” egiten ari zaie euskarari eustea. Horrela, Baietz Hernanik! egitasmoan edota Euskaraldian parte hartzera animatzen dituzte gainerakoak.

“Gutxien espero duzunak har dezake jarrera proaktiboena”

Urte hasieran animatu zen Urko Apaolaza euskarari eusteko erronka hartzera; familian elkartzen direnean erdarara jotzeko joerari buelta ematen ari da.

Familian ari dira euskaraz egiteko erronkari eusten, Urko Apaolazaren kasuan. “Badaude euskara ulertzen ez dutenak edo ulertzeko zailtasunak dauzkatena, eta horregatik, erdarara jotzeko joera izaten dugu, baita euskaraz dakigunon artean ere. Horri nolabait buelta ematea da hartu dudana erronka”.

Euskara Ari Du kanpainarekin hasi zenetik da erronkalarik, eta horrek eragin dio zailtasunen bat. Baina ez du etsi. “Gurea ez da eguneroko erronka, eta horregatik, zailagoa da urratsak ematen ari zarela ikustea; horrek motibazioan eragina dauka, baina saiatu egin behar!”.

Euskara Ari Du edo Euskaraldia, “akuilu onak”

Ia urtebeteko esperientziaren ondoren, lortutakoari luzaroan eusteko itxaropena dauka Apaolazak. “Giltza ohitura aldatuta da, eguneroko gosaria aldatzen duzun bezalaxe. Gero, bihotzak ez ezik, gorputzak ere eskatuko digu gure artean euskaraz egitea”.

Horrexegatik, animatzen du mundu guztia modu batean edo bestean euskarari eusteko ahalegina egitera eta eustera. “Akuilu oso ona da behingoz euskaraz aritzeko, konplexurik gabe, inori baimenik edo barkamenik eskatu behar izan gabe”.



“Aita whatsapp erabiltzen hasi da, eta euskaraz; aurrerapena da hori”

Urtebeteko erronkan ari da ‘Axi’, aitarekin euskaraz eginez, eta euskarak etxean presentzia handiago hartu duela dio.

“Itzaropen gutxiago” omen zuen Ainaraz Azpiazu Adu-riz ‘Axpik’, Hernaniko Euskara Ari Du elkarteak bultzatutako Baietz Hernanik! erronkan izena ematerakoan. Aitarekin euskaraz gehiago egiteko ahal-eginari eutsi dio, eta emaitzak ikusita, aurrera jarraitzeko asmotan dabil. Hemendik gutxira hasiko den Euskaraldian izena ematekotan da; oraingoan, baita amarekin ere.

“Amorrazio handia ematen dit”

Zailtasunak ere izaten dira, noski. “Ama euskaltegian ere ibili zen, baina mantoago ari da, oso urduri jartzen baita,



Euskaraldian ere parte hartzeko prest dago Ainaraz Azpiazu, aitarekin erronkari eutsita.

AINARAZ AZPIAZU

“Ezustekoa hartu dut, baita nire buruarekin ere”

